

MONT BLANC

4000KOEN BIDETIK

Abuztuak 7 ditu eta eguraldi eskasak Aiguille du Midiko kablea zarratua du. Egun bi baino ez ditugu Mont Blanc mendian sikieran saiakera bat egiteko. Algortarrak izanik, barkaezina litzake Portu Zaharreko jaiak hasi orduko zapia jantzita eta garagardoa eskuan txosnetan ez egoteak! Zelan azaldu herritik asago dagoen

mendi bat igotzen saiatu gura dugulako, Algortarrontzako horren inportantea den urteko zita seinalatu honi kale egingo geniola?

Aurreko hiru egunetan, Le Tour ingurutik ibili gara ezagutzen ez genituen mendi eta plateauak bisitatuz. Albert 1er aterpeak, Le Tour glaziar gainean, Aiguille Chardonnet kas-

koaz duen ikuspegiak liluratu gintuen, Forbes eta Migot ertzeekin amets egiteraino. Eguzkiak tarteka baino ez zizkigun gozatu ingurutik egin genituen bi mendi irteerak. Lehenengo egunean, Tete Blanccheko IE-ko ertz simple baina polita eta bere auzokide den Petit Fourche igo genituen, akabuko hau kazkabarrak jantzi-


TESTU ETA ARGAZKIAK



Iñigo Santxo Monzon
(Algorta, 1987)

Nerabazarotik mendizale-tua izanagatik, hamazortzi urte bete berritan auto karneta atera eta, Auñamendietara irteerak egiten hasia. Ordutik, Alpeak eta Pirinioetan hamaika irteera eginak, gehien bat neguan, oinez eta mendiko eskiez.





tako ekaitz eta haizetea lagundurik. Bigarren egunean, mendizale erromesaldiaren parte izanda, Aiguille du Tour mendiarri bisita arina egin genion, Plateau du Trientek, ostera, gure atentzioa eta miresmena eskuratzuz.

3500 metro ingurutik egun pare batez ibili izanagatik, gure burua nahiko aklimatatutzat genuen Mont Blanc mendia igotzen saiatzeko. Aiguille du Midik eskaintzen duen aukera aitaren batean 3800 metrora igotzeko aprobe-txatu nahi genuen, behintzat gau bi altueran igarotzeko. Intentzioak sarri hori baino ez dira, optimismoak zipriztinduriko delirio ederrak. Eguraldi makurrak ez zigun baimenik ematen Vallée Blancen kanpin dendak paratzeko. Ez hori bakarrik, ez zigun ezta Chamonix inguruetako lantzarretan lo-zakuak bota eta lasai lo egiteko baimena ematen ere. Airbnb

aplikazioa erabili genuen apartamentu ekonomiko eta txikia alokatzeko euriak jarraitzen zuen artean. Chamonixeko kale nagusian aurrera eta atzera ibili ginen dendetan sartuz, bière pression garestiak edanez eta postetxe aurrean zegoen italiar jatetxeko Pizzaiola espezialitateko pizzak eta zernahi jenez. Noiz-behinka eguraldi iragarpena kontsultatzen genuen eta, halako batean azkenean, ostegun eta ostiralerako eguraldi txukuna iragarria zegoela ohartarazi ginen.

Lehenengo egunean, Tete Blanceko IE-ko ertz simple baina polita eta bere auzokide den Petit Fourche igo genituen

Vallée Blanche eta Tacul



Chamonixera autobidetik heldu ahala, itzela da menditzar honek duen presentzia. Herri turistikotik paseoa zoazela, ezinezkoa da lantzean behin begirada bat ez zuzentzea izotzez jositako mendi puska honi. Eta gu, Añamen-dietako semeak izanik, 5000 metroko garaierara hurbiltzen den kasko bat zapaltzeak ba zer esango dizuet, ilusio edo erakarpen berezia sorrarazten digu. Hala eta guztiz ere, Mont Blancen altueraren erakarpenak ezin zuen igoera bera ostendu, bidea estali. Mendia bidea baita gustuko duguna egiteko, kanala da. Mendiaren bitartez bidaiatzen dugu herri eta haranak ezagutzuz, naturarekin kontaktu zuzena izanez eta kirol jarduera desberdinak garatuz. Ez da, beraz, 4810 m edo Anetoren 3404 m-ra laburtzen den zer edo zer, tontorraz aparte mendian egindako bideaz gozatzeko dugu.

Oraingoan "4000koen bidetik" saiakera egingo dugu Vallée Blancen kanpin dendetan lo eginez, Urtzi, Aitor eta hirurok. Bide exigenteagoa fisikoki, Taculeko izotz blokeak, Mauditeko lepora ateratzeko azken horma eta, 4000 metrotik gora igaro behar diren ordu kopuru dezenteek ematen zioten forma gure bideaz gozatzeko osagaien zerrendari. Ez gaude Dru edo Jorassetan bide berriak zabal-tzeko moduan, gure Himalaia hau da, ilusioak eta gure ezagutza teknikoak frogan jartzeko moduko mendi bide hau.

Ostegunak zerua oskarbi eder batekin argitu du eta berriz ere gure gogoia Mont Blancera zuzendu dugu. Motxila astunak lepora jaso eta teleferikoko ilara amaigabean jarri gara. Ordu batzuk haize indartsuagatik zerbitzua etenik egon ostean, laueta hartu dugu zerura bi-



Mur de la Côte gaindituta, mendizaleok akituta

dean kabina. A zer nolako harrera egiten dion bisitariari inguruak 3800 metroan, mendizalea mututzeraino. Alpeetan beharrean, Oinak Izarretan bideo sorta xarmagarrian ikusten genituen mendi himalaitikoetan gaudela uste dugu. Estaziotik irtetzean, ertza gainditu eta berehala iritsi gara dendak dauden lekuetara, justuki Cosmiques aterpe azpian. Gure hasierako plana bi gau bertan igarotzea bazen ere, errealitatea oso desberdina da. Izan ere, ordu gutxi barru lo-zakutik atera eta Taculerako bidea hartu beharko dugu. Kanpin dendak jarri, afaria prestatu eta lo-zakuetan sartu gara nerbioek eta biharko igoerek logura urrunduz.

Mauditeko lepora eramaten duen 70 metroko malda konstantea eta apur bat tentea da

Gauerdian, mugikorreko alarma desatseginak lo-zakutik ateratzera behartu gaitu. Gurinezko gailetak te gorrian pixka bat busti eta, dendetatik irten gara kordaz elkar lotzera. Gauak epel agurtu gaitu eta oraingoz ez dabil haizerik. Gure aurretik hiru mendizale multzo ikusten ditugu Taculeko lehen maldetan. 3750 m inguruan, ordu erdi eskas daramagunean, espero ez genuen 4 metroko hormarekin egin dugu topo aurrez aurre. Pasabide hau ez ze-

goen aurreko urteetan bezala metalezko eskailera batekin ekipatua eta, gure aurretik doazen Gaztelako hiru mendizalek piolet bana eskuan izanik gorantza doaz erdi desplomatuturiko tartean. Aurreneko ikarak. Nire artean "Zer osti iten dogu hamen?" diot. Aitorrek, mendian esperientzia luzerik ez badu ere, besteok ez dugun ausardiak jota gora bota du. Hiruzpalau kolpe pioletez, hankak tente eta horma gainditu du. Behin goian, sokarekin aseguratuta gaitu atzekoei igoera patxadan handiagoz aurre eginez.

Erritmo oso mantsoa daramagu, ez gaude behar beste egokituak altuerara eta ordu asko ditugu aurretik. Taculeko gainontzeko tarreek ez dute zailtasun handirik, espero modukoak dira. Pare bat elur zubi igaro eta oso modu erosoa harrapatu dugu lepoa Mauditerako bidean. Jaitsiera lasai baten ostean, Mauditeko aldapa malkartsuetan gora hasi gara. Aurreko egunetako elur prezipitazio eta haizeak, tarteka elur sakonak eta tarteka izotz bizia aurkitzera behartzen gaitu. Goizaldeko bostak aldera heldu gara Mauditeko lepora eramaten duen malda famatura. Pendiza konstantea eta apur bat tentea duen 70 metroko tartea da, izatez korda finkoak ezarriak dituena. Gure intentzioa zen ensanblean gora elkarrekin joatea, esku bat pioletean eta bestea sokan genuela, baina horma oinarrira heldu berritan aurkitu dugun egoerak, berriz ere gure planak eta intentzioak aldatzera behartzen gaitu. Leia bizi-bizi ikusten da eta aurreko egune-

tako elurteek soka finkoa erdi estalia dute. Alemaniaren mendi gida batek borrokan daramatza 45 minutu inguru izotz torlojuak sartuz eta, egia esateko, panoramak berriz ere ikaratsen gaitu. Gure txanda denean, berriz ere Aitorrek beldur barik eta kemen handiz ekin dio hormari. Behin korapilo batera iristean, atzetik goazeno i aseguratuta gaitu eta tira!, zelan edo halan maldari metroak irabaziz goaz. Urtzik eskalada munduan urte dezente sartuak dituela, badoa tarteka mimo handiz aseguruak jarriz nire lasaitasunerako. Taldekide bakoitzak badu bere espezialitatea eta horrek kordadan oreka sortzen du, taldea sortzen du.

Esfortzu fisikoa metatuz eta altuera irabaziz goazen heinean, pausuak mantsotuz doaz

Tentsioak neka eginda utzi gaitu eta oraindik ere, Mont Blanc lekutan ikusten dugu. Isil bakoitzak bere artean zernahi pentsatuz Brevako leporantz goaz. Haizeak oso zakar jotzen du puntu honetan, aurretik igo diren arrastoa elurretan desagerrarazteeraino. Esfortzu fisikoa metatuz eta altuera irabaziz goazen heinean, pausuak mantsotuz doaz. Elurretan arrastoa zabaltzen dugu Mur de la Côte muino madarikatu eta malkartsua igaro

arte. "Mur de la Côte liburuetan dau ala? Aurton sorturiko muñoa izen ber dau honek..." Zelako zigorra, espero ez duzun puntuan holako malda desatsegina. Bertan dago gailurra, ordu eskas batera, baina gure oinek ezin dute gehiago, astun doaz, astun goaz. Burua izakiok dugun zentzuaren bozeramaile lanetan, gogorarazten digu beherako bidean izango dugun marroia: Mauditeko horma eta izotz aldapak, Taculeko izotzetan rappela montatu beharra... Hala ere, tenple eta patxada apur batekin, ilusioak eta gogoek bultzatuta azken muino amaigabeari ekin diogu.

Zortzi ordu eta erdi ostean, gailurra zapaldu dugu hirurok. Gure harridurarako gailurrean bakar bakarrik gaude abuztuak 9 dituen honetan. Gouter ingurutik ez dator inor eta, gure atzetik datozei oraindik ere minutu batzuk falta zaizkie ertz itxurako gailur honetara ailegatzeko. Argazki pare bat eta bueltako bideari ekin diogu. Gure buruak hasi dira buru belarri pausuak zelan gaindituko ditugun aztertzen. Brenvako lepoan pausaldi bat egin, elkarrekin berba eta estrategia zentzudunena diseinatu dugu. Rappelak eta aseguruak, geldiro eta presa barik. Pausuak uste baino era errazago batean gainditu eta, kanpin-dendetara arratsaldeko laurak aldera heldu gara, ia hamabost orduko jardunaren ondoan.

Cosmiqueseko aterpe zaindari txit errespeta garria agurtu nahiko genuke momentu berezi honetan, bere eskuzabaltasun eta gizatasuna gorai patuz. Atzo, kanpin-dendak elurretan paratu ostean, aterpera igo ginen kantineplorak urez betetzeko asmotan. 6€-tan ur botila plastifikatuak erosteko aukera baino ez zigun eman gizon eskuzabalak. Komunera joan ginen edangarria ez izanda ere, gure ardurapean edango genuelakoan ura. Gure atzetik etorri zitzaigun komuneko ur guztia moztu zuen arte. Urik ez kantineplorak betetzeko, ezta hortzak garbitzeko ere. Hori dela eta, ura urtzen eman genuen arratsaldea, baina litro bana eskas ez genuen lortu urtzea gure gas ontzia amaitu zen arte. Mendizaletasuna Chamonix bezalako leku turistikoetan negozio bilakatu zen aspaldi, bagenekien bai, baina ez genuen uste komuneko ur ez edangarria hartzeko baimena kentzera arteko zirkua ikusiko genuenik.

Orain deshidratazio apur batekin, baina lan txukunaren pozak ematen duen indar pitin horrek lagundurik, dendak jasotzen ari gara edateko urik kantineploretan ez dugula. Zorte pixka batekin, Aiguille du Midiko azken teleferikoa hartuko dugu, zelairen batean botako gara lotara eta bihar gaua heldu orduko Portu Zaharreko txosnetan egongo gara gure Himalaian egindako abentura honengatik topa eginez!

Aiguille de Tourreko ertz jostagarrian

